

2020ko jarduera plana _



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

2020ko jarduera plana _

Aurkezpena _3

1_Azterlan kuantitatiboak _4

2_Azterlan kualitatiboak _5

- a. Sektorekako eta gastu publikoari buruzko azterlanen lerroa _5
- b. Ohituren azterlanaren ondoriozko azterlanen lerroa _5
- c. Jasangarritasunari buruzko azterlanen lerroa _6
- d. Hirugarren sektoreari buruzko azterlanen lerroa _6
- e. Eskaera sektorialak _6

3_Krisialdiaren Behatokia _7

Aurkezpena

Kulturaren Euskal Behatokiak urte berezi honetako jarduera plana aurkeztu du. Hasierako aurrekontuetan oinarrituta, 2020rako aurreikuspen bat egin zen; hala ere, aurreikuspen hori erabat baldintzatuta geratu da COVID-19aren ondoriozko gertaerengatik. EAEko kultura arloaren egoera ezagutzeko eta ulertzeko tresna izaki, Behatokia bat-batean etorritako egoerara egokitu da, ezinbestean. Hortaz, alde batetik, neurketak eta proposamenak egiteko tresna espezifikoak ezarri ditu, eta bestetik, gainerako azterlanak egungo egoeraren arabera aztertuko ditu.

Ohiko azterlan bai kuantitatiboez bai kualitatiboez gain, COVID-19a bat-batean iritsi izanaren ondorioz, martxan jarri da Krisialdiaren Behatokia, alegia, pandemiak kultura-sektoreetan izan duen inpaktuaren jarraipena eta azterketa egiteko tresna. Etengabeko aholkularitza emateaz gain, behar diren beste azterlan egingo dira, pandemiaren eta horren inguruabarren eboluzioaren arabera.

Horregatik guztiagatik, aurtengo programa hiru mailatan egituratuko da: azterlan kuantitatiboak, azterlan kualitatiboak eta Krisialdiaren Behatokia.

1_Azterlan kuantitatiboak

Azterlan kuantitatiboek ohiko martxari eutsiko diote, eta egoera honek oso gutxi eragingo die. Estatistika arruntek ohiko erritmoarekin jarraituko dute (Gastu Publikoa eta Arteak, Kultura eta Sormen Industriak); luzera-panelek aldaketa txiki batzuk izango dituzte (ohituren gaineko inkesta bakarra eta Sormen Industriak EKA panelean txertatzea). Azkenik, Artxiboen estatistika atzeratu egingo da landa-lana gelditu egin delako bi hilabeteetan zehar jarduera-uzte orokorraren ondorioz (martxoaren erditik maiatzaren erdira arte), eta urteko bigarren seihilekoan burutuko da.

Inguruabar horrek eragina izango du enpresak eta eragileak dauden egoeragatik. Horrek guztiak EKA panelari eta udazkenean hastekoa den Arteen, Kultura eta Sormen Industrien estatistiken eremuari eragin ahal die.

Laburbilduz, honako azterlan hauek egingo dira:

- _Gastu Publikoaren Estatistika - 2018. Emaitzak.
- _Artxiboen estatistika - 2019. Landa-lana (konfinamenduaren bi hilabeteetan geldirik egon dena) eta emaitzak.
- _Ohituren panela. Inkesta berria (abendua).
- _Enpresa-konfiantzaren Adierazleen panela. Inkesta berria, sormen-industriak barne (iraila).
- _Behatokiaren estatistika-esparru berria berrikustea eta proposatzea (azkena 2015ekoa da, eta 2015-2020 aldirako da).
- _Martxan jartzea Arteak eta Kultura eta Sormen Industriak arloko landa-lana.

2_Azterlan kualitatiboak

Programak urteko zazpi azterlan hartzen ditu barnean oraingoan ere, eta helburua da azterlan horiek etorkizunera begirakoak eta iraunkorrak izatea. Hala ere, katalogoan arreta berezia eskainiko zaie pandemiak kultura sortzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko moduan eragin dituen aldaketa nagusiei.

_a) Sektorekako eta gastu publikoari buruzko

Gastu publikoaren gaineko azterlan estatistikoa egingo da sormen-sektoreetan. Azterlan estatistiko horren helburua da oinarria prestatzea sormen-sektoreak gastu publikoaren estatistikan sartzeko: beharrezkoa da sektore horietan zerbitzu publikoen bidez nortzuk eta nola finantzatzen diren ikertzea.

_b) Ohituren azterlanaren ondoriozko azterlanen lerroa

Berrirakurketa egitea kulturen parte hartzearen, ongizatearen eta kulturak gizarte zatitu batean duen funtzioaren gainean. Praktika «tradizionalak» azaltzen dituzten aldagaien azterketa. Balioak, motibazioa, klasea, kultura-kapitala, euskararen ezagutza eta jatorria. Kulturaren eta ongizatearen arteko harremanaren azterketa; horri esker, kulturen parte-hartzea sustatuko da gaur arte oso ohikoak ez diren inguruneetan.

- _ Zein eragin dute aldagai soziodemografikoek kulturen parte hartzeko ereduak azaltzeko orduan? Eta aldagai sozioekonomikoek? Eta aisialdirako denbora izateak? Eta kulturekiko jarrerak eta balioak? Eta motibazioak? Eta gizartearen eraginak? Eta haurtzaroko kultura-ingurune jakin batean sozializatzeko? Eta euskararen ezagutza? Eta kultura-informazioaren mailak?
- _ Zein eragin du kulturen parte hartzeak maila pertsonalean (bizitzarekiko asebetetze maila)?
- _ Eta gizarte-mailan (tolerantzia eta gizarte-kohesioa)?
- _ Ezberdintasunak sortzen al dira parte-hartzea hartzailea, sortzailea edo digitala bada?

Digitalizazioa betiko da. Inkestak praktika digitalei buruzko atal espezifiko bat jasotzen badu ere, haiek praktika klasikoekin alderatuz, ikuspegia tradizionala da. Izan ere, ohituren panelean nabarmentzen den gaietako bat da kultura-praktikaren autopertzepzioak ez duela arlo digitala kontuan hartzen, hau da, kontsumo digitala ez dela kultura-kontsumotzat hartzen. Ildo horretatik, honako hauek nabarmendu daitezke: paradigma berrian sumatzen diren joerak, pandemiarekin azkartu direnak; sortzen ari diren formatu artistiko berriak; arlo teknologikoaren eragina, berehalako sortze- eta hedatze-aukerekin, eta haren loturak eta interferentziak zuzeneko praktikekin; prestigioaren, pertzepzioen eta esperientzien araberako diferentziak, etab.

Irakurketaren gaineko hausnarketak. Kulturen parte hartzeari buruzko inkestaren emaitzek erakutsi duten ahulezietako bat irakurketan izandako geldialdia edo jaitsiera da, bereziki, euskarazkoan. Gai horretan sakontzea komeni da, praktika horren eta irakurtzen dutenen eta ez dutenen profilarren gaineko ezagutza handitzeko, aldagai soziodemografikoez harago. Hortaz, ikerketa bat egin nahi da, informazio hori oinarri harturik harago joango dena, joerak, formatuak, esperientziak eta jardunbide egokiak aztertuz.

_c) Jasangarritasunari buruzko azterlanen lerroa

Pandemiak ageri-agerian jarri du gaur egungo gizartearen ekoizpen-eta kontsumo-ereduaren oinarriak jasangarritasun eskasekoak direla. Globalizazioa, hiri-bizitza, arrakasta eta masibotasuna, hurbilekoa, distantzia, lan-baldintzak, desberdinkeria, etxea, zahartzea, etab., betiko gaiak dira; baina pandemiaren ondorioz azaleratu egin dira, lehendik ezezagunak ez ziren arren, ezin baitzuten lortzen euren gordinen ikusgarri izatea. Unea iritsi da kultura-jardueraren oinarritzko ereduen gaineko hausnarketa mahaigaineratzeko, ikuspegi zabal baten bidez.

_d) Hirugarren sektoreari buruzko azterlanen lerroa

Orain arte Behatokiak ez du kulturaren eta sorkuntzaren hirugarren sektorea sakon aztertu. Azterketa egingo da Eusko Jaurlaritzako elkartearen erregistroan eskuragarri dagoen informazioarekin, eta azterketa hori Behatokiaren estatistiketan barne hartzen diren datuekin osatuko da: Arteak eta Kultura Industriak (elkarteak eta fundazioak), Gastu Publikoa (elkarteak eta fundazioak) eta ohiturak (praktika amateurak). Hausnarketa hori sektoreen ordezkaritza-erakunde profesionalek zabaldu daiteke, eta maila irekiago batean, gobernantzarekin lotutako gaiak barne har ditzake, hainbat ikuspegiaren arabera (parte-hartzea, erabakiak hartzea, harremana, hitzarmena, etab.).

_e) Eskaera sektorialak

Behatokiak lanerako bide bat du irekita sektoreekin, eta bide horren bitartez, haien azterlan- eta ikerketa-eskaerak bideratzen dira. **Artekale**-rekin lankidetzan hasitako azterlana, pandemiaren krisialdiak bete-betean harrapatu zuena, ikuspegi berri batetik birplanteatuko da, sortutako egoera kontuan hartuta. (**Abesbatzei** buruzko azterlana egiteko sektoreak egindako eskaerari dagokionez, programa barruan mantenduko da, gertaeren bilakaera eta abesbatzen jardueretara bueltatzeko baldintzak zein diren).

3_Krisialdiaren Behatokia

Martxoaren amaieran jarri zer martxan, COVID-19ak kultura-sektoreetan izan duen inpaktuaren jarraipena egiteko helburuarekin. Sektoreen errealitateari jarraipen estatistikoa egiteko tresna bat du, eta jarraipen hori egiteko ad hoc inkesta bat diseinatu da; eta era berean, prospekzio-ariketa bat ere egiten du, non etorkizuneko egoerak aurreikusten diren, azaleratzen ari den errealitateari aurre egitera bideratutako erabakiak hartu ahal izateko, ahalik eta baldintzarik onenetan. Horrela, honako produktuak eta zerbitzuak planteatzen dira:

— Inkesta kultura-eragileei (hiru aldi, 2020)

— Apirila: martxoko datu errealak eta apiriliko eta maiatzeko aurreikuspena.

- Datuen aurrerapena
- Emaizten txostena

— Uztaila: datu errealak apiril-ekainean; uztailiko eta abuztuko aurreikuspena.

- Datuen aurrerapena
- Emaizten txostena

— Azaroa: datu errealak uztaila-urrian; azaroko eta abenduko aurreikuspena.

- Datuen aurrerapena
- Emaizten txostena

— Txostenak etorkizuneko egoeren eta neurrien gainean (hiru txosten 2020)

— Maiatza:

- Talka-neurrien (eta, ahal denean, ebaluazio-neurrien) azterketa.
- Etorkizuneko egoerak honako hauek kontuan izanik: konfinamendua arintzea, jarduera berraktibatzea eta aurreikuspenak (itxierak, gastu publiko eta pribatu erabilgarria, aurrejoera publikoa, etab.). 2020-2021 Horizontea
- Jarduketa-lerroen proposamenak.

— Iraila:

- Talka-neurrien (eta, ahal denean, ebaluazio-neurrien) azterketa.
- Etorkizuneko egoerak, honako hauek kontuan izanik: jarduera berraktibatzea eta aurreikuspenak (itxierak, gastu publiko eta pribatu erabilgarria, aurrejoera publikoa, etab.). 2020-2021 Horizontea
- Jarduketa-lerroen proposamenak.

— Abendua:

- 2020ko ebaluazioa
- Etorkizuneko egoerak, kontuan izanik balizko berragerraldiak, jarduera eta aurreikuspenak. 2021-2022 Horizontea
- Jarduketa-lerroen proposamenak.

— **Aholkularitza iraunkorreko zerbitzua** erabakiak hartzeko. Kontuan izanik egoerak, maila guztietan eta orokorrean, sortutako ziurgabetasuna, politikak garatzeko premia larria eta pandemiaren ondoriozko aurrekontu-muga, zerbitzu horren helburua erabakiak hartzeko orientazioa ematea izango da. Neurrira egindako zerbitzu bat da, barne-mailako izaerakoa, azkarra, eta hedapen publikora zuzendutako txostenak baino malguagoa.

2020ko jarduera plana _



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA